

Groibek kale

Elgetako aldizkaria maiatza 68z

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

**Aurtengo
Asentzio eguna
keizpetan**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

Torrealdeako bizilagunek udalari

Badirudi, herri ordezkariek, poliki poliki, ekintza urbanistiko batzuek sortzen dituzten irisgarritasun arazoekin konturatu hasiak direla. Aintzinan, elbarrituak ahaztuta zeuden, haiek akats fisiokoari lotuta, baliaagarrientzat eginiko gune publikoak erabiltzeko aukerarik gabe.

Gaur egun, gizartearen aldarrikapen jarduntsuak, kaltetuen taldeak bideratuta, arduradun politiko eta urbanistikoen sentiberatasuna piztea lortu du, zerbitzu eta ondasun publikoen gozamina eta erabilera galarazten duten traba arkitektonikoak kentzeko neurriak hartzea heldu arte.

Eta Elgetako herria ez da salbuespena izan. Alkateak eta Udaleko teknikariak, "azterketa zehatza" egin ondoren, arrisku handiko tokietan jardutea erabaki dute. Azken egun hauean, ikusi ahal izan dugu nola ari ziren obretan herriko hainbat puntutan; aldatxoak prestatzen eta barandailak jarritzen. Hau Guztia, elbarrituei sarrerak errazteko eta pertsona helduei erortzeko arriskuak desagerrarazteko.

Neurri hauek guztiak zuzenak iruditzen zaizkigu, baina Torrealdeako bizilagunok harriturik gaude gure auzorako sarreran inolako neurririk jarri ez dutelako. Han ez daude auditoriuna, polikiroldegia, eskola, ez da ere lokal publikorik. Baina badaude pertsonak, batez ere helduak eta haurrak, egunero arrisku bizian ibiltzen direnak torrealdeako bide maldatsu horietatik.

Ez dugu zehaztuko idatzi honetan Torrealdeako sarreraren egoera nola dagoen, baina udalekoak gonbidatzen ditugu makuluekin, gurpil-aulkierekin edota umeen kotxearekin gure auzora etortzen saiatzeko; orduan jakin gogoz dute zein den arriskua.

Badakigu udala Torrealdearen garapen urbanistikorako plan berezi bat lantzen ari dela. Beraz, suposatzen dugu, gure arazoan irtenbideak plan hori egitean argituko direla. Baina egitasmo hau, ezin liteke aitzaki modura erabili Torrealdean dagoen istripu arriskua gutxitzeko hartu behar diren neurriak atzeratzeko.

IRTENBIDEAK ORAIN !!!!!

Torrealdeako bizilagunak

Sebastian Arantzabali eta dudu duten guztiei

Aurrekoan Goibekokalera bidalitako gutunean egiak ez ziren falta, baina horiek ez dira gure karta idazteko arrazoiak. Kartaren amaieran adierazitako esaldi bati erantzun gura diogu. Honela zioen zure gutunean: "...elgetarrek udalarekin presionatu beharko lukete, behingoz, Elgetan ere GOITB ikusteko. Lan honetan Goibeko Kultura taldea motorra izan beharko litzateke, kultura eta herri komunikabideen alde badago behintzat."

Dudan jartzea ere...

-Goibeko kultura elkarteak izan da orain dela bi urtetik proiektu hau garatzen den lekuan astero-astero egon dena, kontatu ezin diren beste bilera eginez proiektua garatzeko, proiektuan zuzenez zuzenean parte hartuz.

-Goibeko kultura elkarteak eman du dirua Goierna komunikazio zerbitzuetara beste herrietan emandako proportziora. Hau Goibeko-ko elkartekideek egin dute, poltsikotik, eta uste dut zure errespetua mereziko dutela ehunetik gora diren elkartekide horiek.

-Goibeko kultura elkarteak lanean jarraitzen du imaginatu ere egin ez zenezaken moduan Elgetan GOITB

ikus dadin. Bide batez, esan, Udaletxeak (EAJ eta EHk osatuak) diruz laguntzen ez duen arren, elgetarrei GOIENKARIA buzoira ematen zaiela barikuo, hau ere KULTURA elkarteari esker. Hauekin, eta aipatu barik doa GOIBEKOKALE, ulertuko duzun moduan nahiko argi geratzen da herri komunikabideen alde gaudela.

Kulturaren alde gaudela dudan jartzea... Espaloia kafe an-tzokiaren proiektuaren txostena aspaldi aurkeztu dugu udalarekin kultura batzordean. Erantzunik ez eta bitartean 60 milioiko aretoa oso noizean behingo ikuskizunak bakarrik eskaintzen.

Elkartekide gehienek berriz ere berritu dute kulturarekiko konpromezua eta orain badihardugu bai euskararen aldeko kanpaina bat jorritzen eta baita Espaloia proiektuari irtenbide serio bat aurkitu eta garatu nahian.

Gure ekintzek erakutsiko dute zer garen eta nora goazen. Bitartean, eskerrak eman nahi dizkiogu kuota ordainduz Goibekorengan sinistu duten elkartekide guztiei, horiek dira-eta GOITB, GOIENKARIA, GOIBEKOKALE, ESPALOIA eta oraindik plaza-ratzeko dauden beste hainbat ekintzen motorra.

Goibeko k.e.-ko talde eragilea

ESTAMPACIONES
INTXORTA S.A.

INTXORTA



AENOR


ER

Empresa Registrada

BR-0714/296

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabiloi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



Zorionak!

Maiatzaren 13an gertatu-takoa aztertu ondoren, elgetarrei zoriontea da, bururatzen zaidan lehenengo. Abstentzioa %15,4koa izan baitzen, hau da gure iritzia eman nahi izan genuen 820 laguneko erroldatik ia 700, oso ondo, hauetatik % 70a EAJ-EA koalizioaren aldekoa, 18,6a EHren aldekoa, % 5,6a PP-k, %3,1a IU-keta % 1,5a PSE.

Bizpahiru gauza aipatzeko, lehenengo elgetarron apostua pakea eta abertzaletasunaren alde. Hainbeste adierazpen euskara eta abertzelearen aurka, hainbeste atentatu eta hauen "erabilera" partidu espainolisten partetik eta bestetik EHkoen epeltasuna. Nahikoa dugu, kokoteraino gaude, hau Euskadi da eta utzi behar gaituzte gure etorkizunaren inguruko erabakiak hartzen, bai Madrilgo gobernukoek eta baita ETAko buruzagiek ere. Ze eskubide dute gure partez erabakitze? Oso larria PP eta PSEkoek esan eta egin dutena, (eta horrela gelditu dira) baina besteena, besteena ez dut hitzik aurkitzen. Euskadi izorratzeko modu egokiagorik ez dago: eurok nahi dutenari, bizitza eta pakea ukatzen, adierazpen askatasuna ukatzen, aniztasuna ukatzen...

Bigarrena, boto mugimendu handia. Lizarra-Garazi apostuaren aldeko egin zuten abertzaleek eta zoritxarrez, gaizki ateratu zen. Su etenaz geroztik EHk bere mezua aldatu zuen eta, hain garbi egiten zuten pakearen aldeko diskurtsoa epeltasunetan galdu zen; gatazkaren ondorioak dira... Horrela ez dago batasunari eusterik. EAJ-EA koalizioak fede handiz egin zuen apostua, besteak beste, pakea lortzeko bidea zelako eta gaizki ateratu arren, negoziatioaren aldeko diskurtsoa mantendu du. Irtenbidea behar dugu eta EAEko euskaldunok, garbi adierazi dugu: Irtenbidea ez dator atentatu eta kale borrokatik ezta soilik bide polizialek ere.

Hirugarrena, prestatutako botoak direla eta. Iritziz aldatzeko askeak gara eta hauteskunde hauetan askok botoa aldatu dute. Botoak galdu dituzte partiduei autokritika egiteko garai aproposa, bestela... Irabazi dutenentzako, konfidantza eta erronka paregabea, baina markatutako bidea jarraituz.

Iñaki Ugarteburu



Abertzaleek gehiengoa

Hauteskunde hauek baloratzeko orduan, lehenengo gogoratu behar da Euskal

Herriko zati batean egin direla, ez da egia Ibarretxek hauteskunde gauean esandakoa "han votado 8 de cada 10 vascos" Leitzatarrek ez dute bozkatu ez eta Baigorrikoek.

Emaitzei dagokionez, bi zatiketa egin litezke, abertzale-espainolista eta ezker-eskuma.

Lehenengo sailean Abertzaleak irabazi dugu, Mayorren gurutza espainolista geldituz. Bigarren sailean eskumak argi irabazi du, PNV-EA eta PPK 75 eskainotik 52 dituzte-eta. Honek kriston kezka sortzen dit, biharko zer herri eredu eraikiko dugun pentsatuz, AHT, Autopistak eta horrelako proiektu txikitzaileak bultzada izango dutelako eta gizarte soldata edo 35 orduak baztertuta geldituko direlako.

Alderdiei dagokionean, irabazle garbiak PNV-EA izan dira 600.000 boto lortuz, eta galtzaile garbia EH, aurrekoetatik 80.000 boto galduz, gehienak PNV-EAren mesedetan. Mayorren beldurrez jendeak segurura jo du.

Emaitza kaxkar hauek ez ker abertzalearen erreflezio sakona eskatzen dute, gure akatsak onartuz eta autokritika eginez.

Boto asko joan zaizkigu Mayorren beldurrez, baina baita ETAREkin ados ez zeudenak ere. Aurrera begira lanean jarraitu behar dugu, gure akatsak zuzenduz, berriz indarrak bildu eta eguneroko borrokan, auzo eta herrietan Euskal Herri aske baten alde, Gizarte berdintsuago baten alde, eta gure lurraren defentsan.


PNV-EA-k dauka orain erantzunkizuna, boto horien indarrak abertzaleen arteko akordio baten alde erabiliz, 98ko egoerara bueltatzeko. Pakea eta subirotasunaren bidetik, edo PSOERekin bat egin eta Ardantzaren garaietara bueltatuz. Hau egiten badu orain irabazitako botu emaile askok ez du ulertuko.

Sebastian Arantzabal



kutxa

gizarte-ekintza
obra social



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldzakaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Goibeko k.e.
Tel: 943 78 90 85
Salbador 2, Kultur Flxea
goibeko@topagunea.com



Gipuzkoako foru aldundiak diruz lagundutako aldzakaria

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketak:** M. Elena Ezenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).

Copyright-a: EGA. Lege-Gordailua: SS-475/95. ISSN: 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldzakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Inbertsioak nabarmen behera 2.001eko aurrekontuan

Ekainak 5ean izango da udalean 2.001.urteko aurrekontuak eztabaidatuko diren plenoa. Aurrekontua onartuz gero, udalak 166.997.110 pta.tako aurrekontua izango du. Aurrekontu hau iazkoa baino 40 bat milioi baxuago da.

Aurrekontuek nabarmen egin dezaketeko behera. Iaz Udaletxeak 86.450.642 pta.ko inbertsioa egin bazuen, aurten 27.725.006 pta.ko inbertsioa egingo du. Iaz 4.sektorearen urbanizazioa (26

milioi), mendi nekazaritzako proiektua (6 milioi) eta ekintza askotarako aretoa (32 milioi) izan ziren inbertsio nagusiak. Aurten inbertisoetan 4 milioi izango dira Espalioa antzokirako, 4 milioi Iconos proiektorako, 3 milioi mendi nekazaritzako proiektorako, 2 milioi herriko topografi lanak egiteko eta 1, 8 milioi kiroldegian berogailua jartzeko.

Udaletxeko pertsonal gastuak ere igoko dira. Aurten 57.403.377

pta.takoa izango daiteke gastua, iaz baino %13,59 gehiago. Udalak eskaintzen dituen zerbitzuek ere igoera txiki bat izango dute, iaz baino 3 milioi inguru gehiago, guztira 39.225.099pta. izango da zerbitzuetako aurrekontua. Aipatzekoa kultura ekintzetarako laguntzak 1.086.000 pta.tik 650.000 pta.ra jeistea aurreikusten dela.

Sarrerei dagokionez, zergetatik 29.567.501 pta. jasoko ditu udaletxeak. Udal tasetatik

22.922.727 pta. jasoko dira. Bi sarrera hauek batuta, iaz baino 6 milioi gehiago izango da zerga eta tasetatik jasotako dirua. Diputazio, Jaurlaritza eta beste erakundeetatik jasotako 73.792.075 pta. izango da. Udaletxeak 11.500.000 pta.ko mailerua eskatuko du aurrekontuak ixteko.

Ekainaren 5ean batuko dira Udal ordezkariak aurrekontuok eztabaidatu eta onartu ala ez erabakitzeko.

Eguraldia lagun, giro paregabea Asentzian

Maiatzaren 27an ospatu zen Asentzio Eguna eta beste urtetan ez bezala, aurtengoan eguraldi ezin hobea egin du. Goizean, arrantza lehiaketan 15 lagun inguruk hartu zuten parte eta irabazlea kanpotarra izan zen. Eguerdian, meza ostean, Elgetako Dantza taldekoek eta Bergarako Moises Azpiazu taldekoek dantza erakustaldia egin zuten. Bazkarian, beste urtetan baino jende gutxiago batu ziren, 60 lagun inguru. Eguzkiak gogor jotzen zuenez, pagopean eta giro

alaian jan zuten gisau goxoa. Bigira taldearen eskutik erromeria izan zen arratsaldean.

Iluntzean, egunean zehar egindako beroen eraginez edo, gizon bati bihotzakoak eman zion eta anbulantziaren etorrera beharrezkoa izan zen. Mutikoren batek ere susto galanta hartu zuen potzura jausi eta atera egin behar izan zutenean.

Bi lagunentzako afariaren zozketako zenbaki saritua 183 izan zen eta ordezkoa 1078.



Aspaldiko partez sekulako eguraldia egun guztian zehar.

GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
ALDI
Tel:
76 80 98.

Andoni Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Sutargi ikuskizuna Elgetan

Aurtengo jaien egitaraua aurkezteko ekitaldi berezia Espaloian

Datorren ekainaren 15ean izango da Azoka Nagusiko jaien egitarauaren aurkezpena Espaloian. Jai batzordeak gaztelaniaz eta euskeraz dagoen egitaraua banatuko du eta ondoren Aukeran dantza taldearen eskutik, Sutargi ikuskizuna ikusteko aukera izango da. Ikuskizunean 14 pertsonak parte hartzen dute eta akelarreen inguruan girotutako antzezlanak dira. Bertan suaren eta argiaren inguruko dantzak aurkeztuko dira.


Ekitaldira joan ahal izateko beharrezkoa izango da gonbidapena izatea. 300 gonbidapen besterik ez daude banatzeko eta batzuk banaturik dauden arren, udale-

txean daude eskuratzeko moduan.

Jaietako prestaketak aurrera

Jaietako eguenerako herritarrek dotore jazteko gonbidapena luzatu du jai batzordeak, emakumeak soineko luzez eta gizonak trajez edo esmokinez. Afari herrikoia izango da plazan eta ondoren dantza txapelketa parte hartu nahi duenarentzat.

Barikuan, besteak beste, Markeliñe taldaren eskutik "Allo Europa" ikuskizuna izango da polikiroldegiko kantxan. Zapatuan, Mexikarrak izango dira plazan eta domekan BVolcal Zaragozako taldearen emanaldia



ikusteko aukera izango da. Golden Apple Cuarteten antzerako taldea da eta "a kapela" abesten dute.

Danborradarako prestatzen

Hasi dira jadanik aurtengo danborradako entseguak. Zapatuan izaten dira eta Eibarko danborradako 1. eta 2. zuzendariak etortzen dira irakastera. Aurten jende gehiagok hartuko du parte danborradan eta 3 pieza barri joko dira: Retreta 2, Debako martxa eta Pastelero. Momentuz

Aukeran dantza taldearen eskutik, Sutargi ikuskizuna ikusteko aukera izango da.

8 kantinera besterik ez daude eta behar bada kantopetik ekarri beharko direla adierazi du jai batzordeak.



Aurten ere Alexek zuzenduko du danborrada.



Leku paregabea.
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83



Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Ez legezko txabolak

Etxeetara bidalitako anonimoak txabolen inguruko eztabaida sortu du

Aurreko asteetan txabolen inguruan, etxeetara heldu den gutunak, ortuetan eraikitzen ari diren txabolak, legezkoak ote diren hasi da galdetzen jendea. Itxura denez, legea kontuan izan arren denek ez dute lege hori betetzen.

1.994an onartu ziren txabolen inguruko arauak eta oso argiak dira. Txabolen azalera ezin da 10 eta 15 metro karratu baino haudioagoa izan eta altuera 2 metro baino baxuagoa izan behar da. Txabola hauek ezin dira etxebizitza edo atsedenteku bezala erabili. Horregatik galarazita dago tximinia, sukalde, komun, ur hornidura eta argindarra edukitzea. Eraikin hauek baserri lanetarako lagungarri eta nekazaritza

tzako tresnak gordetzeko bakarrik erabili daitezke, beraz ezin da hauetan, animalirik gorde edo hazi.

Kasu batzuetan udalak ezaugarri hauek alda ditzake. Adibidez, txabola batzuei ur ornidura edukitzeko baimena eman diete, noski ur hori gero ortuetan erabiltzeko.

Txabolak eraikitzeko udaletzeko baime-

na lortu behar da. Txabolen ezaugarriak desberdinak izan daitezke, txabolen inguruko lurrek duten hedadura, bertan emango diren landaketak... kontuan hartuta.

Udaletxeak, teknikaria bidaltzeko asmoa du, herri inguruan dauden txabolak legezkoak diren ala ez aztertzeko.

Udaletxeak, teknikaria bidaltzeko asmoa du, herri inguruan dauden txabolak legezkoak diren ala ez aztertzeko.

Udaletxeak, teknikaria bidaltzeko asmoa du, herri inguruan dauden txabolak legezkoak diren ala ez aztertzeko.

Autobabesa mendian ikastaroa

Kultura eta Kiroletako batzordeek mendian autobabesteko ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa ekainak 19 eta 21ean izango da, 19:30etatik 22:00etara. Ikastaroa doan izango da eta parte hartu nahi dutenek udaletxean eman dezakete izena ekainak 8a baino lehen. Gutxienez 15 laguneko taldea osatu behar da ikastaroa aurrera eramateko.

"Pirinioak harmonian" ikusentzutezkoa

Ekainak 22an, bariakua, gaueko 21:30etan ikusentzutezkoa izango da Gaztetxean. Jose Ramon Agirre hurbilduko da, pirinioei buruzko argazkiak eta bertan ikusitakoa erakustera.

AHTren aurkako mozioa

Maya ingurugiro taldeak eta Gaztetxeak, Abiadura Haundiko Trenaren aurkako mozioa aurkeztuko dute ekainak 5eko plenoan. Honetaz gain, ekainak 16an Donostian izango den manifestaziora joateko animatu nahi dituzte herritarrak.

Lehen jaunartzea

Maiatzak 27an, domekan, lehen jaunartzeak izango dira Elgetan. Pello, Eneritz, Eneko, Kepa, Iñaki eta Leire izango dira, domekan parrokiaren lehen jaunartzea egingo duten neska mutikoak.

Mendi Federazioko bilera zapatuan

Mendi Federakundeak ala eskatuta, maiatzak 26an Euskal Herriko mendi taldetako ordezkariak egin behar zuten bilera, aste-bete atzeratu zen. Hori dela eta, ekainak 2an, zapatuan, hurbilduko dira Elgetara, mendi talde desberdinetako 200 ordezkariak.

Jarri zure iragarkia

Tel.: 943.78.90.85

Aperribay, s.l.


Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.

Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Maximo Arantzeta (77 urte) Jubilaua



-Zenbat urte mendi- mendi elkartian?

1952ko otsailaren 15etik gaur arte

- Lehenengo eguna gogoratzen dozu bertan?

Bai, bertara sartu giñan egunian lokala bakarrik zeguan, hutsa.

- Aldaketa asko egon dira?

Mendi-Mendian hasieratik hona belaunaldi aldatetia egon da.

Batetik bajak dirala, batzun gogo faltia...hasieran askoz be giro jatorraua zeuan gaur egunian baiño.

- Danborradako eguna heltzeko goguakin?

Bai, pixkat nerbioso nago baina desiatzen nago eguna heltzeko.

- Jaixetako egunik onena?

Ferixako Eguna duda barik, ganauak eta bestelakuak ikusten dittugu-eta. Bestela gure edadiakin ezin leike

juergan ibili da...

- Goizian jaikitakuan ze egitten dozu?
Aurpegixa garbitxu eta armosau.

- Ikatzarretik zelan ikusten da Elgeta?

Urtiak pasatzen diran heñian asko handitxu da Elgeta. Hori oso ona da herrixandako.

- Etorkizunik badago elkartiakin?

Oiñ arte jarraitu dau eta aurrerantzian be jarraitzeko bidian ikusten dot jendiak goguakin hartzen badau.

- Gaztetan zertan ibilli zinan lanian?

Leku askotan ibillittakua naiz lanian, Bilbo eta Zumarragan ibilli nintzan kaliak egitten pikua eta palia eskuan hartuta. Zabalanian be eskupe-tak egitten lbilli nintzan.

- Gogoratzen dozu lehenengo laztana?

Bai, bai ,bai! 19 urtekin eta gaiñera urriner ta bizkor emonda. Hurrengo egunian konfesau egiñ biharra...

- Sasoian egoteko errezetia?

Ondo jan eta kitto, ez dago errezetaik euki biharrik, sano bizi!

- Egunero egiñ biharreko zeozer?

Goizian jaiki eta mobimientuan ibili alde batetik bestera ahal bada behintzat.

- Semiak laguntzen dabe baserrixan?

Bai, basuan laguntzen doste askotan Mikelek eta baitta Aitorrek be.

- Kalabaza asko jasotakuak zara?

Eskola asuntuan bai, baina neska asuntuan ez.

- Baserrixan zein jenero dakazue?

Olliuak, bihorrak, konejo batzuk eta ortu pixkat.

- Mendi-Mendian egindako afaririk onena?

Behin akordatzen nahiz goizeko lauretan juntau giñala lagun batzuk eta Mendi-Mendiara juan eta kriston afaixa egin ginuala bertan. Goizalderarte geratu ginan onenok bestiek etxera alde egin da gero.



Zer pentsatzen jatzu herri guztian egin dittuen ranplak?




(63 urte) Etxekoandria
Jhane Olabarria

Uste dot oso ondo darella ze behiñ edade batetik aurrera falta egitten dabe holako gauzek. Uste dot azkenian danoi ondo etortzen jakula holako gauzak.

Uste dot egiñ badittue biharrezkua zalako egingo zebela, ze jentia eskatu egitten dabelako izango da. Honekin izan leike hauteskundien tiroia be aprobetatzia...

Xabat Leanizbarria
(28 urte) Bihargiña



Jose Luis Zabaleta
(46 urte) Bihargiña

Nik uste dot lehenautik eginda egon biharko zira-la. Salvador kalian ostia egin zebelian, harekin batera, herri guztian oiñ egin debena egin biharko zebela uste dot. Hala eta guztiz, proiektua oso ondo dago.



Jose Mari Belar
(39 urte) Bihargiña

Premiñarik ez dakanak holako gauzen biharrik sekula ez dau ikusten, baiña premiñia dakana horri begira dago beti. Beti bakoitzan premiñak ikusten doguz eta gauzak hola ez dira. Beti dare ondo holako ideak.

Uste dot konturatu dirala, herritarrek holako gauzen faltia zekela, eta herritarrek dira lehenengo. Gaiñera horrek aldapatxuok ez dira ezinduendako bakarrik ama guztioi be ondo etortzen jakuz.

Jzaskun Larrea
(36 urte) Bihargiña



Oso ondo dare, komodidadia beti dago ondo. Guretako be askoz errezagua da aldatxotik igotzia eskillaratik juatia baiño. Jente asko elizara juateko be San Roke kaletik juaten da honek eskillara guztiok ez igotzearren.

Sebasitana Garaizabal
(79 urte) Eubilatua



Kartetan jokatzeko giro egokia

Kopa bat

Tel: 768093

Patxi Taberna

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

Maya ingurumen taldearen irteera

Maiatzaren 13an Elgetako Maya taldeak herritik zehar ibilaldia egin zuen.

Topatzen zituzten zuhaitz adaxkak batu eta hauen berri zerbaite gehiago jakiteko helburua izan du irteerak. Dani Gillegi antolatzaileetako batek eta Kepa De Vega partehartzaileak kontatutakoa azaltzara gatoz oraingoan.



HURRENGO HJTZORDUA

Bakoitzak batutako adaxkak egunkarien artean sartu eta lehortzen ipini dituzte. Noizean behin papera aldatu adaxkak ez usteltzeko eta gainean, pisua ezarrita gordeta dituzte.

Hurrengo deiladian batutako adaxkekin bilduma bat osatuko dute, adaxka bakoitzaren fitxa osatuz. Fitxa horretan, izen zientifikoa, nongoa den, zertarako erabiltzen den, ugaria den... azalduko da.

BERTAKO ZUHAJTZAK HAZJIA EZJN JKUSJ


Kontatu digutenez, oso zaila gertatzen ari da inguruan Haritza, Pagoa...zuhaitz haundiak ikustea. Lursailen jabeak pinuak botatzen dituztenean tartean dauden beste zuhaitzak ere botatzen dituzte-eta. Horregatik sekula ez dira hazten eta beti txikiak ikusten ditugu.

JBJLBJDEA

Elgetatik San Roke ostetik zehar sagardotegi atzeko aldetik Lepasoloraino joan Goimendira iritsi, eta buelta, Baztarrikako bidetik zehar egin zuten.

Eguraldi txarra eginez gero Azulara joatea pentsatuta zuten batez ere bidea bertaraino ondo dagoelako, baina eguraldia lagun izan zuteneguz Egurbitzara joan ziren. Goizeko 9:00etan elkartu ondoren hiruzpalau orduko ibilaldi didaktikoa izan zen.

Dozena bat lagun joan ziren, bai gurasoak eta baita umeak ere. Bidean zehar ikusten zituzten adaxkak batu eta Danik azalpenak (izena, nongoa den, non hazten den) emanaz osatu zuten goiza. Guztira hogeitabi bat motatako adaxkak batu zituzten. Jendeak interesa azaldu zuela esan digu.



IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta
mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste
dimentsio batetara!


Tel: 768078

Izatezko bikoteek ez dute gutxiago izan nahi

Urte asko ez direla, familia arteko bizitza egiteko elizatik ezkontzen ziren gehienak. Ondoren, epaitegitik ezkontzeko joerak indar handia hartu zuen. Gaur egun, berriz, gero eta bikote gehiagok ez ezkontzea erabakitzen du —homosexualek ezin dute ezkondu ere egin—. Izatezko bikoteak dira. Horrek arazo asko sortzen dizkie, izan ere, ez dituzte ezkontutako bikoteen eskubide berberak. Berandu baino lehen berdintasuna lortzeko lanean dihardute hainbat gizarte taldek.

Azken urteotan asko hitzegin da izatezko bikoteen inguruan. Baina sarriagotan —gero eta gutxiago— homosexualekin lotu dute termino hau. Oker lotu ere. Izatezko bikote terminoak, bikote izanda, onarpen juridikorik ez dutenak, edo orain arte ezagutzen ziren "formarik" ez dutenak hartzen ditu. Bikote moduan bizi arren oraindik ezkongabe daudenak, alegia.

Izatezko bikoteen artean ere hainbat multzo daude. Alde batetik, hete-



rosexualak daude. Hauek, elizatik zein epaitegitik ezkontzeko aukera izan arren, bide hori ez jarraitzea aukeratzen dute. Bestetik, homosexualek daude. Sexu berekoen arteko harremana dutenak, heterosexualak ez bezala, ezkontzeko aukerarik ere ez dute.

Izatezko bikoteak

egon badaude, baina legeak ez die "ohiko" familiak dituzten babesa eskaintzen. Sasoi batetik ona, aldiz, gauza asko aldatu dira. Gizartea asko aldatu da, eta azken urteotan, izatezko bikoteak ere aintzat hartu dituzte boterea euren esku dituztenek. Gero eta bikote gehiago daude elizatik

Miren Atxotegi: "Izatezko bikoteek ezkontutako bikoteen eskubide berberak izan beharko lukete"

edo epaitegitik ezkontze-ari uko egiten diotenak. Horretaz gain, gizarteak ez ditu homosexualek lehen bezainbeste baztertzen. Pixkanaka-pixkanaka izatezko bikoteak beste edozein bikotek adinako eskubideak izan beharko lituzkeela onartzen joan da jendea.

Gizartearen onarpena jaso arren, legeari begira ez dituzte eskubide berberak. Gaur egun ezkontuta dauden bikoteek ezkondu gabe dauden bikoteek ez dituzten abantailak dituzte; hala nola, abantaila fiskalak, erentzien aurrean zenbait eskubide, pentsioak, alarguntasuna...

Izatezko bikoteen artean ere denek ez dituzte eskubide berberak. Umeak adopzioan hartzerako orduan esaterako, bikote heterosexualak inongo arazorik ez duten artean, edo gutxiago behintzat, homosexualen haurrak adoptatzeko eskubidea urratzen die legeak.

Cuerdaren dekretua Erakundeen aldetik, 1994. urteko otsailaren 23an eman zen izatezko bikoteen eskubideak bermatze-

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAK ETA
ELIZARIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidia 2
ELGETA

E
HARATEGIA

A
S
T

San Roque 6
Tel: 768168.

Bikote izanda onarpen juridikorik ez duten bikoteak dira izatezko bikoteak. Heterosexualak zein homosexualak izan daitezke.

ko lehenengo urrats garrantzitsua — ordurako zenbait erakundek ordenanendu juridikioan, zein zenbait epailek aitortzen zituzten izatezko bikoteak—. Garai hartan Gasteizko alkate zen Jose Luis Cuerdak, dekretu bidez, izatezko bikoteek eta ezkonduetako bikoteek eskubide berdinak izan behar zituztela erabaki zuen. Dekretu haren bidez, Udalaren menpe zeuden eskumenetan eskubide berberak onartzen zitzaizkien bikote ezkondu zein ezkongabe-
ei.

Gizarteko arlo gehienek oso ondo hartu zuten dekretua, baina kontraesanak ere sortu

zituen. Izan ere, bikote zirela frogatu ahal izateko erregistro batean izena ematera behartu zituen Gasteizko Udalak, hain zuzen, izatezko bikoteek dituzten ezaugarrietako bat urratuz.

Elgetan ere egin da eskaera


1994. urtetik aurrera zenbait gizarte taldek Euskal Herriko Udaletan erregis-

troak irekitzeko kanpaina jarri zuten abian. Ordutik, udal gehienek onartu dute dekretua. Elgetan, joan den urrian egin zitzaion udalari bikoteen eskubideak bermatuko dituen erregistroa zabalteko eskaera. Miren Atxotegik egin zuen eskaera ofiziala, aurretik ere zenbait herritarrek interesa agertu zuten arren. "Duela urtebete inguru udaletxera joan nintzen eskaera egiteko asmoz. Eskaera idatziz egin behar nuela esan zidaten. Urrian aurkeztu nuen idatzia", azaldu zion Miren Atxotegik Goibekokaleri.

Elgetar gaztea Asier mutilgunarekin bizi da egun. Hala ere, Atxotegik ez zuen arrazoi berezirik izan eskaera egiteko. Izatezko bikoteek ezkonduetako eskubide berdi-

nak izan beharko luketela uste duen pertsona baten eskaera dela esan zuen Atxotegik. "Gaur egun ez dauka zentzu handiegirik zenbait eskubide izateko ezkondu egon beharrak. Kasu batzuk oso larriak dira, eta arazo larriak sortu daitezke. Arazo horiek arazo izan ez daitezen ezinbestekoa da izatezko bikoteen eskubideak bermatzea", adierazi digu Mirenek.

Udal gehienetan—Elgetan ekainaren 5ean eztabaidatuko dute plenoan— dagoeneko izatezko bikoteak onartu dituzte. Beste pausu bat da, handia izan ez arren. Berandu baino lehen erakunde guztiek onartu beharko dituzte.



ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Berezitasuna.
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatua
Etxaurreak

Sukaldeak
Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

Elbarritu eta adimen urritasuneko jendearendako Debagoienako IX. olinpiadak

Iaz izan bezala aurten ere zapatu goizean izan ziren polikiroldegiko kantxan olinpiada hauek. Goizean goizetik jardun ziren hainbat kirol modalitatetan. Bai hockey-a, Voley-ball-a, diska jaurtiketa, bolo-jaurtiketa, pilota, etb. eginez. Denak umore onaz eta galtzea ez zaiela gustuzen demostratuz guztioi bezala. Kirolariak Deba goienako kirol teknikari eta zaintzaileegatik lagunduak izan ziren goiz guztian zehar. Olinpiadei amaiera emateko, denak gimnasiara sartu eta aerobikeko irakasleaak dantzan jarri zituen guztiak. Bukatzeko luntx bat izan zuten esku hartu zuten guztiek.



Zapatuan ez zen galtzailerik izan

Futbitoko txapelketaren laugarren jardunaldia

Laugarren jardunaldia izan zen pasa den zapatuan jokatu zena. Hiru dira liga erregularra amaitzeko geratzen diren jardunaldiak. Iaz ez bezala aurtengo txapelketa buelta batera izango da eta jarraian erdifinalak eta finalak jokatu dira Elgetako jaietarako. Momentuz erritmo onean jokatzen ari dira partiduak batesbeste lau partida jokatzen dira zapatu arratsaldean. Oraindik sailkapen-burua ez dago argi.



Aurten lehenengo aldiz diru sariak izango dira txapelketan


HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.

Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

Elgetako pala txapelketan bukaera bitxia


Elkoro eta Irazablal Amorotoko pala txapelketan irabazle

Bitxia izan zen Elgetan jokatu den pala txapelketaren bukaera. Finalistak finala jokatzeko ados ez ipini eta finala jokatu barik geratu zen. Bikote bat Bergarakoa zen bestea Elgoibarrekoa. Azkenean lehengo postua konpartitua izan da. Bigarren Bergarako beste bikote bat izan da. Hirugarren Morales eta Eizagirre elgetarrak. Aitor Arkarazo eta Rebeka Ubera bikotea ez zen erdifinaletarako sailkatu.

Enrike eta Igor Amoroton nagusi

Bizkaialdean dagoen Amoroto herri txikian jokatu zen txapelketan nagusi izan ziren elgetarrak. Txapelketako ia partida gehienak irabazi ostean txapela jantzi zuten. Finalean 35-29ko emaitzaz irabazi zuten. Bi elgetarrek konpenetrazio ona erakutsi dute txapelketa osoan zehar, batzutan urduri jardun diren arren.

*Igor eta
Enrike txapela jasotze-
rako orduan*



Peñalver lau t'erdian kaleratua eta Ubera II.a aurrera

Agur esan dio David Peñalverrek Elgetako pilota txapelketa. Txapelketan parte har dezakeen azken urtea zen aurtengoa, datorren urtean ezin izango du esku hartu parte-hartze adina gaitutako du eta. Partida honetara eskuz larri iritsi zen David, aurreko asteetan jokaturako partiduek ez zieten batera mesederik egin. Horrela ba, ezin izan zuen gustora jokatu eta Muniozguren Gerni-

karraren aurka etsi behar izan zuen. Azkenean 11 tantu egin zizkion. David kanporatu zuen pilotari bera izan zuen aurkari Xabierrek joan zen zapatuan. Kasu honetan Xabier erraz nagusitu zitzaion Muniozguna. Azken emaitza 22-6. Hasierran parean hasi arren laugarren tantutik aurrera bere nagusitasuna erakutsi zuen Elgetakoak eta segituan iritsi zen 22.tantura.



*Peñalver
Muniozgunaekin,
gero azken honek
Xabierrekn galdu-
ko zuen*

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari

denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzak
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK



XXI. mendian, eta historian zihar gertatutako gertautu; eta zientzia guztietan izan ditudun aurrerapenekin, badare buruan sartzen ez jatazen gauzak, eta ez leku arazengatik preximamente. Holako bat da monarkixia.

Gaur egun, erregia eukitzia baiñu gehixago harritzen nau ondionkan jendia monarkixiaren alde dagola jakitzia. Badakitt aldekorik ez balego ez zala egongo erregerik, baiña, esandako moduan, hori da ulertzen ez dodana. Monarkixiaren arazua aspaldi konpondu zebeñ Frantzian eta Errusian, eta ondo konpondu gaiñera: "rey muerto rey puesto" katia apurtu eta kitto. Bestiok hemen gabiz

dakauena ahal dogun moduan aguanta-tzen. Egunen baten independentzia lortuko bagiñu be, ez jatan arrarua egingo baten batzuk erregeren bat billatzia Euskal Herri-rako. Hor dabil Nafarruako Pedro I. izan gura daben bat bere burua horretarako eskaintzen.

Konstituziñuak diñuan ez erregia "inviolable" ei da. Kortxuarekin edo altzairuzko kantontzilluekin ibiliko ete da? Konstituziñuak holan badiño be, nik neuk behintzat ez daukat hor puntuan konstituziñua apurtzeko asmorik. "Inviolable" izatiaz gaiñ, ezin jako burlarik be egiñ. Eta zertarako bihar dogu errege bat bere kontura barre batzuk egitteko ez baldin bada. Arzallusek, Aznarri be tonto esan ez dotsanak (oso erantzun zorrotza), ez ei dau esan erregia tonto danik. Baiña hori esan dabela uste

Soberanua

dabene hasi dira fiskalari agintzen Arzallusi kontuak eskatzeko.

Gaiñera, erregiak, Aitta Santuaren moduan, ez dau hutsik egitten. Batzuetan diskurtso ederrak egitten dittu, dana txalua dana berba goxuak; baiña, hankasartzeren bat egitten dabean kulpia diskurtsoa idatzi dotsanana. Hori da hori amama eukitzia.


Aittaren hurrengo semia, eta gaurkoz, espiritu santua bakian lagako dogu. Bueno, ba uste giñuanian estatu osuan hemengo hauteskundiak begira egongo zirala, askoren arduria beste bat zan: printziaren andriak zelako odola eduki biharra daukan. Bi joera dagoz: batzun ustez, printzia berak gura dabenekin ezkondu biharra zan; eta beste batzun ustez, monarkikuaguen arabera, printzesa edo odolurdin horietako bate-

kin.

Ni be oingo kasuan monarkikuena baino monarkikuaua naiz, eta uste dot odolurdinen batekin ezkondu biharra zala. "Pur juder". Guk bera aguanta bihar badogu, berak be aguntatzia dauka bere pareko bat, eta ez esposiziñueta-rako modelo odolgorri horietako bat. Badakitt odolurdin batekin ezkondu arren be gero izango dittula odolgorriko amante batzuk, kapritxo horrek be pagauko dotsaguz-eta; baina, "la reina y yo" esan bihar dabean edukitzia daka bere onduan parian tokau jakona.

Briboien gorabehera gehixau jakin gura dabenekin liburutegixan dauka Ardi Beltzaren "un rey golpe a golpe" liburua. Entreteneñgarria.

Enrike Gorrotxategi



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO

erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**




Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46




Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67



ARGAZKIXA: Mari Asun Agirre

Frontoia beteta

Elgeta herri pelotarixa izan da beti, danok egitten dogularik frontoittik bueltatxua urtian zihar. Elgeta herri pelotarixa izatian garrantzia haundixa euki dau bai frontoiak eta baita bertan antolatu izan diran txapelketak be. Lau t'erdiko txapelketia badoia aurrera eta jende gehixau batzen da partiduak ikustera. GOITB-k be emoten dittu partiduok aspaldixan.

Oin dala hogeita bost bat urte be, jende dexente batzen zan frontoian. Batian norberak jolasten zebalako, bestian lagunak edo semiak jolasten zebalako, bertan batzen ziran familixa eta lagun kuadrillak.

Beheko illaran: Mutikuak ez dittugu ezagutu

Lehenengo illaran: Juan Luis Arantzeta, Ana Mari Larreategi, Mari Karmen Arantzeta, Jose Antonio Irazabal, Emilio Mandaluniz, ezezaguna eta Jabier Leanizbarrutia.

Bigarren illaran: Kontxi Arantzeta, Mari Asun Agirre, Eugenio Goikoetxea, Antoni Telleria, Maria Retolatza, Eugenia Zubiate, Milagros Epelde, Ramona Elkoru, Iñaki Berraondo eta Alberto Arantzeta.

Hirugarren illaran: Jose Ramon Arantzabal, Fernando Arantzeta, Pello Gorrotxategi, Iñaki Etxeberria, Jabier Arantzeta, Jesus Mari Berraondo, Valentin Villa, Kandido Elortza, Fakundo Sarasketa, ezezaguna eta ezezaguna.

Laugarren illaran: Iñaki Gorosabel, Jose Luis Arantzeta, Roberto Osoro, Aitor Bolinaga, ezezaguna, ezezaguna, Begoña Ardanza, Begoña Loiti, Maria Jesus Lete, Ezela Zubizarreta, Jose Ramon Arrazola.

Bostgarren illaran: Katalinas, Juan Jesus Iturrigaztelu, Kandido Urteaga eta Jose.

Gorengo illaran: Fernando Ojanguren, Juan Luis Alberdi, Goio Saratsua, Valentin, Jose Mari Gorrotxategi, Jose Manuel Zabala, ezezaguna, Jose Antonio Otxoa, Jose Antonio Oianguren.



eusko
alkartasuna



ELGETAKO EAJ/PNV-EA
KOALIZIOAK,
MAIATZAREN 13 AN GUREGAN
JARRI DUZUEN KONFIDANTZA
ESKERTU NAHI DU

ELGETAKO EAJ/PNV-EA

Goibeko kultura elkartea

Goibekokale eta Goienkarixa etxeraino

GOITB Elgetan ikustia be lortuko dogu

Egin zaittez goibeko kultura elkarteko bazkide
deittu 943.78.90.85 zenbakira eta laga zure telefonua.
Guk deittuko dotsugu.